




Sustatzaileak



Babesleak



Gabrielen
ispiluetan barrena



Galda bildumako lehen ale honek Gabriel Aresti du ardatz.

Haren heriotzaren 50. urteurrenean hainbat poetari luzatutako galdera bat du abiapuntu: zer ikusten duzu Arestiren ispiluan zeure burua islatzen denean?

Edorta Jimenez, Tere Irastortza, Harkaitz Cano, Sonia Gonzalez, Iñigo Astiz eta Leire Vargasek beren gogoeta poetikoak eskaini dizkigute, nork bere betaurrekoak jantzita.

Euskaltzaindiak biziki eskertzen dizkie ekarpen horiek, baita harrera ere irakurleei.

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia Zerbitzua (HIZBEA).

© Edukia: egileak.

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / Académie de la langue basque

Plaza Barria 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Posta elek.: info@euskaltzaindia.eus

Webgunea: www.euskaltzaindia.eus

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Olatz Aldasoro

Inprimategia: Tecnigraf

ISBN: 979-13-991065-3-4

Lege-gordailua: BI 1209-2025


AURKIBIDEA

Edorta Jimenez Ormaetxea <i>Hitza mailu ezin bihurturik</i>	7
Tere Irastortza Garmendia <i>Gabriel Arestiren ispiluaren aurrean: harri biziak</i>	15
Harkaitz Cano Jauregi <i>Hiru oroitzapen eta erdi Arestiren ispiluetan</i>	23
Sonia Gonzalez Fernandez <i>Agian</i>	33
Iñigo Astiz Martinez <i>Poesiaren marmarra historiaren arnasestuan</i>	43
Leire Vargas Nieto <i>Gure hitzek ametsak lurrera ditzaten</i>	59

Edorta Jimenez Ormaetxea

Mundaka, 1953

Hitza mailu ezin bihurturik



Shakespeare, Baudelaire,
Verlaine, Curros Enríquez,
García Lorca, Dante, Eliot,
Hikmet, Neruda. Bilbotarrak
euskarari ekarri zizkion horiek
eta beste batzuk ere ez dira
mailu-poesia direlako
gogoratuak Mendebaldeko
literaturaren oroitidazkietan.

HITZA MAILU EZIN BIHURTURIK

Mahai honetara bildu garenoi zera proposatu zaigu, Gabriel Arestiren obraz hain zuzen, 20 bat minutuko azalpen literarioa, sortzailearen ikuspuntutik egina, ez azterlariaren ikuspuntutik. Ekimenaren titulua, berriz, *Arestiren ispiluetan barrena*. Ez da proposamen makala.

Halaxe ba, horrexetara jarrita, Omar Nabarroren hiru adibide hautatu ditut ispilu jokorako langai, *ispilu* hitza Nabarroren hitz kuttunetako bat denez gero. Ea, bada, ganorazko zeozer harilkatzera iristen naizen. Hiru adibideetatik haren lehenengo liburukoak dira bi: *Itsastxorien bindikapena*¹ lanekoak; azken liburukoa da —*Haragizko amoreak*² hirugarrena. Bada, liburuon artean hogeita hamar urteko tarte dagoelarik, hona mintzaldi labur honetan defendatuko dudana ideia nagusiaren aldeko argudio nagusia: Gabriel Arestiren munduan irakurri eta irakurri sarturik bizi izan denak nekez utziko du hori mundu hori. Bahitua izan da, hala edo nola. Ingurura begiratu eta, hara, Arestiren irudiak ikusten ditu horrek, hitz egin nahi eta, horra, ahotsa haren ahotsarekin nahastuko zaio. Ispilu jokoa? Bada, bai.

Natorren adibideetara.

Lehen adibidea: Aldarri fundazionala

Itsastxorien bindikapena da Omar Nabarroren inaugurazio liburua. Eta hara non, liburuko lehenengo olerkia, «Ibar ezkerra» izenekoa, Arestiren epizentroan lehertua den. Hona liburuko lehenengo lerroa: «Aleman barkuak gaue-ro atrakatzen du Zorrotzako portuan» (Nabarro 1985, 9) (IB, 3).

¹ NABARRO, Omar (1985). *Itsastxorien bindikapena*. Susa. Aurrerantzean, IB.

² NABARRO, Omar (2010). *Haragizko amoreak*. Susa. Aurrerantzean, HA.

Izenik gabeko barku hori dukegu, agian bai, euskal literaturako barkurik eza-gunena. Gure herbeheretar alderrai, edozein gautan, ezustekoenean, ager dakigukeen mamua.

Testu hori etorri zitzaidanean Zorrotzan bizi nintzen. Zelan ez, bada, Gabriel Arestiren olerki zentralaren oihartzun bortitzak aditu? Abandotarrak denbora batez bizi izan zituen bazterrak bizi izaten ari nintzen. Ispilu jokorik? Neu ere Aresti nintzen, eta ez zen huts-hutsik aleman barkuak (sic) han atrakatu izanak eraginda (Aresti 1986, 15)³. Bazen ere bizi nintzen etxea Zorrotzako gorenean zela, eta hartara iristeko eta handik jaisteko maldan gora eta behera egin beharra izaten nuela. Egunero.

Bada, behin Zorrotzako maldan gora eta behera, zelan ez gogora ekarri gure literaturan gailurretakoa den *Maldan behera*? (Aresti 1986, 87)⁴. *Maldan behera* liburuko leloetako bat eraldaturik etorri zen Omar Nabarroren inaugurazio hartara: «Agudo goaz denok etsipenean behera» eta «kresal usaina antzeman ezinik / laino ketsuan zehar / aldapan gora» (Nabarro 1985, 9) (IB, 6).

Etsipenean behera eta aldapan gora, Harri-herri jokotik ihes egiterik ez zegoen legez, Maldan behera poesia-gailurretik ere ez.

Nabarroren horiek alde batera, Zorrotzako portua eta Arestiren izena elkarri loturik dira behin eta betiko, portu horretan egin baitzuen poetak aldarri: «Beti paratuko naiz gizonaren alde» (Aresti 1986, 15) (HH, 7). Aldarria fundazionala da.

³ ARESTI, Gabriel (1986). *Harri eta herri*. Gabriel Arestiren Literatur Lanak 2. Susa. Aurrerantzean, HH.

⁴ ARESTI, Gabriel (1986). *Maldan Behera*. Gabriel Arestiren Literatur Lanak 1. Susa.

Aldarriaren testuingurua ere fundazionala da. Beste hizkuntza-ideologia bat ekarri zuen: Anton eta Gilen, biak biraoka, han euskaraz eta hemen erdaraz. «Okerbideak ez baitaki mintzaerarik, / berdin tratatzen baitu / erdalduna / eta / euskalduna».

Hizkuntza baten zilegitasunaren jaiotza-akta zen.

Zorrotzako portuan eman zitzaion jaiotza-agiria «euskara erreala» hizkuntzari.

Negar, emaginak egin zuen. «Antiojuak busti zitzaizkidan / (amak gauean pentsatu zuen erre kara erori nintzela)» (Aresti 1986, 15) (HH, 8).

Erditu berriaren orde z egin zuen negar Arestik Zorrotzan.

Harrezkero ez zion inoiz negar egiteari utziko. Ez zuen motiborik falta izango.

Euskal nazio berri baten aldarri fundazionala zen hura. Nazio hartan, beti gizonaren alde, ze euskal nazio aldarrikatu berrian baziren hezur-haragizko gizonak, ze ez eskema ideologiko edo konstrukt u hutsak, Anton eta Gilen (uler bedi gizon eta emakumeak).

Arestiren zina 1964koa da. Haren bidez, Gabriel Arestik, beti kapitain pilotu, nazio zaharren ontziari sekulako lehergailu-karga sartu zion. Zorrotzako portuan. Zaharra ez zen behingoan hondoratu, oster a.

1966an Urretxindorrak musika-taldeak Ziriako Andonegi mutrikuarraren *Aitorren hizkuntz zaharra* kantua *juke-box* haietaraino hedarazi zuen, zabaldu zuen. «Biraorikan ez duen hizkuntza garbia» kantatzen ikasi genuen⁵. Egia

⁵ OSKORRI (1998). «Aitorren hizkuntz zaharra» [Abestia]. The Pub Ibiltaria 3. Elkar.

esan, egun kaleetan kantuz ari diren kolektiboen errepertorioko pieza da. Bizi luzea hizkuntza garbiaren mitoari!

Omar Nabarrok ez zion lekurik egin Zorrotzako bere barku alemanaren testuan, ezta behar ere. Hori bai, Gabriel Arestiren hirugarren ideia fundazionala agertu zitzaion. Beti gizonaren alde eta beti gizonaren hizkuntzaren alde, Aitaren etxean baina. Zeina Arestiren kasuan ez baitzen Jabetza Erregistroko balizko paperetan zekarkeena. Angel Zelaieta miretsiak (Aresti 1986, 63)⁶ Gabrielen biografiara ekarri zuena, zinez eskertzekoa, bestalde, Arestiren «Nire aitaren etxea» olerkia aberriaz dela esango nuke. Horren alde ez da tesi potolorik behar, nik uste. Nahikoa da haren abstrakzio mailari, haren etsaien eta zemaiei zerrendari eta defendatzailearen —poetaren— bitartekoei begiratzea. Etxea sinbolikoa da. Euskal nazioa, akaso, hizkuntza gorabehera? «Nire» idatzitako lekuan «gure» idatzi behar izan zukeena, eta hortik gora kito interpretazioak?

Baiezkoan nago.

Bigarren adibidea: Noren etxea?

Bada, Arestiren etxearen karietara Omar Nabarrok beste aldarrikapen bat egin zuen, *Itsastxorien bindikapena* liburu inauguralean *etxea* absolutuari *banketxe* aldaera kontrajarrit.

Aitaren etxean
dirua gordetzen denean
ez da gehiagorik
aitaren etxea
aitaren banketxea

⁶ ZELAIETA, Angel (2000). *Gabriel Aresti: biografia*. Susa.

baino
eta
nik
ez dut
inoiz
inoren banketxea defendituko⁷

Gabriel Arestik hizkuntzaren ideologiarekin nola, antzera egin zuen Omar Nabarrok *denon aberria* konstruktarekin. Aberatsen etxea ez da haren etxea. Ez du defendituko. Zeren kontra ez duen defendituko, ez dauka zerrendarik zertan osatu. Nahikoa du zazpi hitzeko manifestu laburrekin: «nik / ez dut / inoiz / inoren banketxea defendituko».

Horra klase-eszisia.

Hirugarren adibidea: Poesia mailu?

Urteak igarota, eta Arestiren poetikak Omar Nabarro harengan norainoko eragin inperatiboa izan duen ikus dezagun, aipa dezagun bigarrenak aurre egin behar izan dion hirugarren eszisia bat, *Harri eta herri* liburutik haren azken lana den *Haragizko amoreak* arte 25 urte igarotakoan, hain zuzen.

«Esanen dute / hau / poesia / eztela, / baina nik / esanen diet / poesia / mailu bat / dela» (Aresti 1986, 63), zizelkaturik utzi zuen Gabrielelek *Harri eta herri* izeneko harrobian (HH, 12).

Poesia esentzialki zer den, hipotesi bi ditugu: poesia mailua da (Arestirena); poesia mailua ez den beste guztia da (esanen duten heroiena). Horrekin zer,

⁷ NABARRO, Omar (1985). *Itsastxorien binkidapena*. Susa. Aurrerantzean, IB.

baina? Nork esanen zuen orduan poesia zer den eta zer ez den? Kritikari garaikideek esanen zuten. Zeri alderaturik, ostera?

Garaian egiten zen poesiari, beharbada, edo, zertan ez, Arestik berak euskaraturik zeukan poesiari alderaturik, ez balitz gero ironia.

Shakespeare, Baudelaire, Verlaine, Curros Enríquez, García Lorca, Dante, Eliot, Hikmet, Neruda. Bilbotarrak euskarari ekarri zizkion horiek eta beste batzuk ere ez dira mailu-poesia direlako gogoratuak Mendebaldeko literaturaren oroitidazkietan⁸.

Abandokoak garaikide izan zituen euskal poeten artean Mikel Lasa eta Jon Mirande gailentzen dira «haiena poesia badela» esanen luketenen artean. Ala egun haien izenak inork gogoan ez dituenen izen andana hura bilatu behar-ko? Zertarako, baina?

Ez naiz nahastuko «esanen zuten» haiek nor ziren ikertzen. Izan dut tentazioa, aitor dut, ekin ere ekin diot gerra ondoko eta *Harri eta herri* arteko urteetako aldizkarietan begiratzeari. Akademikoegia zeregina. Dena dela, hor dirau erronkak.

Diodan legez, «esanen dute» hartatik 2010era Omar Nabarrori eszisio hori bizi-bizi zebilkion, «zer idatzi?» galdera larriari zer erantzun bilatzen, blokeaturik, «bidegabekeriak aurrera egiten duen» artean. Ataka hartan aurrera egingo bazuen, poetak ezinbesteko zuen bere poetika axioma zehatz batetik eraikitzea: ez dago hitza mailu bihurtzerik, horra! Inperatibo hori betetzeko inpotentea da poeta.

Bada, zer egin? Poesia sortzeari utzi?

⁸ ARESTI, Gabriel (1986). *Gabriel Arestiren Literatur Lanak*. Itzulpenak (I, II). Susa.

Omar Nabarroren erabakia ez da hori izanen.

Haren poetika salbatzailea honetan laburturik datza:


Txibien sasoia da ba orain itsaspean.
Lehorrean ondurik dira sagarrak,
bidegabekeriak aurrera egiten du
eta hitza mailu ezin bihurturik minez
aldarri egiten du haragiak
bizitza bera den zauriaz
zauriturik gozatzeko⁹

Gizona, hizkuntza, etxea eta mailua.

Maisuak hizkuntza hauta genezan bihotza zabaltzen lagundu zigun, noren
alde paratu aldarrikatuz, horrek birao egin arren.

Horrekin nahikoa eta lar ere bada.

Zauria ere bagara.




⁹ NABARRO, Omar (2010). *Haragizko amoreak*. Susa.

Tere
Irastortza Garmendia

Zaldibia, 1961

*Gabriel Arestiren ispiluen aurrean:
harri biziak*



GABRIEL ARESTIREN ISPILUAREN AURREAN: HARRI BIZIAK

Jerardo Elortzari

0. Gabriel Arestiren ispiluan: harri biziak

Ezinezkoa da Arestiren poesiaz jardutea Arestiri buruzko iritzi nahas-mahasa eta garaikideen bizipenen eta pasadizoen kontaketa eskerga zeharkatu gabe.

Ondo egina deritzot, bada, jardunaldi hauetako galderari. Ez dakit erantzuten zer ikusi behar dudan Arestiren ispiluan, baina ondo dakit badudala non begiratua.

1. Bizitzeko sortu eta sortzeko bizi

Bizi ahala idatzi zuen eta idatzi ahala bizi izan zen Aresti. Idazteaz eta sortzeaz, neure artean egokitzen naizenean, honetxekin konformatzen naiz: bizitzeko sortzearekin eta sortzeko bizitzearekin.

Hala ere, bistan da, ez gara garaikide, eta arestizale izan arren, ez naiz jarraitzaile. Edonola ere, irizpide honetan, poema bat edo liburu bat gehiago edo gutxiago gustatzea alde batera utzita, bizi ahala idazten dut eta idatzi ahala bizi naiz; uste dudanez, Aresti bezala.

Biziaren urei begira jartzen zenean, Arestik ez zuen bere burua bakarrik ikusten, eta ez zen bere burua ederretsiko zuen nartzisoa. Munduaren uretan islatzeak lagundu zion bestela antzemanezina den atzealdeari erreparatzen, bere ingurumariaz eta munduko uren isuriar jabetzen. Eta horixe da, neuk ere, biziaren urei begira estimatzen dudan jarrera.

2. Ni baten oihartzunak: Gabriel Arestiren lekukotasuna

Argitaratutako lehen liburuan, *Maldan behera* izenekoan, Arestik idatzita utzi zuen «M): Munduaren neurria»z ziharduela: «Nire buruaz mintzatzen naiz, naizelako / munduaren neurria. / Barka biezaidate. / ». Nork bere begiekin ikusten ditu gauzak; alegia, bere buruari begiratzeko «Orienteko miraila» behar zuen Arestik ere.

Zuzenbideak debekatua jarraitzen zuenez, Arestik bazekien lehen pertsona maskara ere bihur daitekeela, eta berak, bere izena, bere autoretza eta bere izana txertatu zituen bere poesian, inork gutxik bezala, eta asmo hori argi utzi zuen hasieratik, 1959an bertan, *Bizkaitarra* bilduman.

Maldan behera liburuko lehen poeman halaxe jarraitu zuen «I. UNTERGANG // Egun batean nire gogoak / utzi nahi baitu mendia / MALDAN BEHERA DOA AGURO / NIRE GORPUTZ BIILUZIA», eta «REQUIEM» poeman dio «Nire arima hegalaria / gozatu baitu zerua, / LURPEAN DATZA EHORTZIRIKAN / NIRE GORPUTZ USTELDUA». *Harri eta herri* liburuan, berriaz, lehen parteko «A): DOM PEILHENI HITZ APURTUAK» poemaren amaieran bere bizilekua ziurtatzen du, eta «K): NI eta NIK DIODANA»ren ostean «L): NIRE IZENA» poeman sinadura emanda uzten du hiltzen denerako: «Gabriel Aresti Segurola.». Eta halaxe jarraitu zuen *Euskal Harriaren* lehen parteak: «Nire grazia Aresti da ta», edo «Arestiren bihocak» errepikatuz, eta «Euskal harria» poeman «hi / arbola, euskal harria» seinalatuz, edo bere *Azken harria* liburuak lehen arestiarra (Luzia Aresti) madarikatu zuen endari amaierarako bere burua eskainiz.

Ni hori osatu beharrean jardungo du bizitza osoan Arestik. Poesia ez da idazten norbere burua eta bizipenak islatzeko bakarrik, baita mundua ulertu eta eraldatzeko ere. Eta batean, bere izena edo grazia aipatuz; bestean, bere gorputz biluzia eta usteldua mugimenduan jarritz; hurrengoan, bere enda euskalduna pairatuz, liburuetan zehar agertzen den Arestiren larrupean mundu osoa dago.

Hala moduz idatzi nuen neuk ere «Nire larruan nagon» poema, nahiz eta ez dudan idatzi arrazoi, argudio eta forma berberak erabiliz.

3. Zehaztasun beharra: zer eta nor, noiz eta nola, nongo eta norako

Gabriel Aresti zehaztasunaren poeta da, poesia argi eta klaroaren izenean aritzeak hala eskatzen duenez. Baina lekukotasuna eman beharrak, garai-kidetasunaren arrastoa utzi beharrak, besteen izen-abizenak, garaikoak eta historikoak bezala toki-izenak ere zehaztera darama poeta. Ez da gure artean beti politikoki zuzentzat hartzen, baina justiziaren balantzan zehaztasuna jarri behar da, egiak min ematen badu ere.

Gauzen eta tokien eta pertsonen harremanak zehatz-mehatz izendatzea gertaera bakanak irudikatzea bezala da. Pertsona-izen bereziak ez erabiltzea ez ote zen Arestirentzat, norbait ez nabarmentzeagatik, gizakia gauzaki bihurtzea eta besterentzea?

Zehaztasuna ez al da, beste alde batetik, egia berriak, garaian garaiko eraldaketak erakusteko bidea? Gabriel Arestik, maldan behera jaitsi zenean, aitzurraren ordezk mailua zeukan eskuetan, eta gero baita kontable baten arkatza ere.

Arestiren aldean, neuk aski izan dut gehienetan hitz zehatz eta jakinak erabiltzea, edo izenordeetara eta hitanora jotzea, eta izen berezi pertsonalik ez dut erabili, baina ingurumaria zehaztasunez aipatu izan dut.

4. Mailu batek egiten duen poeta

Gailentzen gaituen errealitateari gizakiak logikaren izenean ematen dio onarpena. Horren aurka, Gabriel Arestik, maldan behera baserritik kalera bidean, baserritarren aitzurraren ordezk ola-langileen mailua jaso zuen. Poetak mailua behar izan zuen kontra aritzeko: alde batetik, okerrak puskatzeko;

eta bestetik, ahoa eta gogoa behar zituen gizarte isilduari hitz egin eta deia-
dar egiteko.

Mailukari aparta izan da Gabriel Aresti, eta onespenera egokitutako logikaren
aurka idazten dituen poemak dira bere ederrenetakoak, nire ustez.

«KAUSAREN KAUSA» poema da Arestiren poemen artean, egiaren alde eta
aurka, gehien gustatzen zaidanetako bat. *Euskal harria* poema liburuan eman
zuen lehenengoz, ondorengo grafiaz: «Berriz diot: Soinuak ez du enzuten, /
sua ez da errecen, / ura ez da busticen, / argia ez da ikusten, / dirua ez da
erosten / airea ez da aizacen, / eta / doloreak ez du minik ematen: / Zoro dei
egidazue, / baina / zuzen nagoela aitortu behar duzue, / zeren, / hic batean, /
kausa batek / ez du / bere arrazoia / motibacen».

Nik eta neure garaiko emakume askok ere aitzurra, mailua eta jostorratz eta
lan-orratzak geure aurrekoen esku atzeman ditugu, baina, hala ere, gailen-
tzen gaituen errealitatearen hala moduzko naturaltasunari kontra eginez
eusten diogu sortuz bizitzeko grinari.

5. Ahotsa indartuz eta ahopean bizitakoaren harri bizia sortuz idatzi

Besteek esana datorrenak ez du erabat gure errealitatea adierazten. Hortik
abiatu behar du Arestik, nire ustez. *Harrizko herri hau* liburuan. Arestik esanda
utzi zuen bezala: «Gertaera bat kontatu nahi genuen, / baina / orok dakizue /
nolakoa den / gaurko eta hemengo aire hotza; / orok baitakizue, gu / isiltzen
gara».

Hala ere, isilik geratu ezinik, kantuetan, zortzikoetan, olerkietan, antzer-
kietan ordu arte esan edo entzuten ez zirenak, nola edo hala isildu direnak,
hauspotu egin behar zirela-eta emandako argibideei kontra egin zien Arestik.
Egiak harria bera puskatuz lortzen du harri bizia, Fernandoren egiena izan
arren.

Neu, euskara batua egonkortu antzean, ahozketasunaren uretan murgiltzen naiz sarri. «Behin esandakoa ez da altzora bihurtzen» idatzi nuen, eta behin, ezinbestean aitortua entzun ondoren, ulertzen saiatzen naiz, sekretua hautsi gabe, gaurko egunera ekartzeko. Aspaldi-aspaldi esaten zen bezala: «Denik ez baita esan behar eta ez denik ez baita sinetsi behar».

Egiari eta gezurrari buruzko gure ikuspegiak ezberdinak dira, hein batean, egunen gurpilak hala ekarrita. Baina batez ere bat egiten dut Gabriel Aresti-ekin eta euskal kulturaren ondareak isuritakotik edanez, formatik jakintza-iturrira iristeko gogoz.

6. Trukean: zortziko zaharretan egiak topatu nahi

Zortzikoa, zortziko dobloi, zortziko erreal, zortziko txanpon, txakur txiki, paperezko diru, txartel ala bitkoin. Zortzikoa ere izan zen txanpon garai batean: diruak diru dira, eta diruak diru dirau erabiltzen den bitartean; eta hitzek, sosak bezala, balioa hartu eta galdu egiten dute.

Zortzikoaz, bertso-tankeraz eta zortziko txanponaz edo diruaz, etengabe dihardu Arestik: kapitalaren trukea diruaz egiten den neurrian. *Harri eta herri* liburuan, bigarren partean idatziak utzi zituen *pieza* ederrak «L): Munduan / gauza bat bakarra dago / erosten eztena. / Dirua» edo, horien ostean, «O): Jokua ez da errenta», «R): Amorioaren preziorik», edo «X): Egun batean / eztu inork / ezer erosiko». Eta hirugarren partean, erabakita utzi zuen: «D): Dirurik eztagoen egunean / ezta / gizonik / erosiko».

Aresti zortzikoaren formaz lotuko zaie euskararen, harriaren, egiaren, gizakiaren eta herriaren balioari, itzuli-mintzuli ingurutxo dantzan, bere liburutetan eta euskal herriko plazetan. *Harri eta herri* «Astepeko sekretarioren bertso» berri eta zaharrekin amaitu ondoren *Euskal harria* liburuaren lehen partean ere, non bere bertsoak dirutan neurtzen dituen: «Dukat edo ezkutu banatan salceko berso berriak (maileguan emandako lehen disima)».

Aldi berean, zakuan gorde den galdera da hitzaren jabetza, haziarena bezala, lanarena bezala, eta hori oso garbi ageri da *Azken harria* liburuan: «BERRIZ HITZAREN JABETZAZ // Aberria / soldaduena da; / Jainkoa / apaizarena; / ondasunak / aberatsenak. / Hitza bakarrik da / poetarena: / Hitz eta hitzak. / Haiek / beretzat gordatzen dituzte / balezta-artean, / eguzki-santuan, / katea-pean. / Baina poetak / hitza / herriari bihurtzen dio, / hiztegi batetan / bildu ondoren, / ama erditu-berriak / ume jaio berria / bera izorratu zuen / aitari / ematen dion / bezala».

7. Poetak herriari itzultzen dio hitzarekin egia, herriari eskatuz harri bizia

Askok poetak zorotzat hartu arren, Arestiren arrazoiak zaharrak, finkatuak eta iraunkorrak ere badira. Orain Axular zaharraren logikan ardaztuak, hurrena Fernandoren pasadizoetako egiak, Arestik berak dioenez *Harrizko herri hau* liburuko «Auresku eta atzesku» poeman: «Urteak dituk / Fernandoren egiak / esaten ditudala, / Atsularren arrazoiak / ematen ditudala. / Batzuk miriesten zituan: // Nor duzu hau / hain argi / hitzegiten daukuna». Zortziko bertsoaz mundua trukean darabilkigu eta euskal hitza munduan eragiten duen asmoa da, orobat; eta *Euskal harria* liburuan, berriz, idatzia zuen «Nire bihoca ezkerrean dago eta bertako odola gorria da».

Egun diruaren joan-etorriak garai batean esan ezin ziren hitzen bideak bezain mutuak dira: normala da isilean, poesian, irakurrieran ematea eta jasotzea bere harri bizia. Nahiago nuke, nahi, neure poesiari ezer islatzea baino, euskal kulturari itzuli ahal izatea harri biziaren durundiaz euskal kulturatik jasotako adurra. Baina nork daki bat noiz den poeta zuhur eta noiz den ero?

8. Ez dut zerurik espero

Besterendutako hizkuntza, kultura, historia eta herria bereganatu nahi duen poeta izan dugu Gabriel Aresti.

Euskaldunak, muturik, munduan zoriona bereganatuko badu, bere hizkuntzaren kapitala bereganatu beharko du; alegia, hizkuntzaren eta kapitalaren jabetza edo kontzientzia. Eta jabetzarekin, gizarte-erabileren balioa eta trukearen eta eraldatzearen txanpona: elkar-trukea.


Arestiren hitzak nireganaturik, ariko naiz; ariko jokoan, harri zapal baten gainean. Eta zazpia, zenbaki magikoa denez, zabal bedi durundia, gure aurretik Arestik esana utzi zuen moduan: «Poeta naizen ezkerro, / eztut zerurik espero. Bederatzi kopla ditut, / lau zuhur eta bost ero».



Harkaitz Cano Jauregi

Lasarte-Oria, 1975

**Hiru oroitzapen eta erdi
Arestiren ispiluetan**



Software librearen antzekoa
da Arestiren kode poetikoa:
hura irakurtzen duen edonork
sentitzen du formula hura
berrerabil dezakeela bere kasa.

HIRU OROITZAPEN ETA ERDI ARESTIREN ISPILUETAN

Kontua da askoz lehenago zebilela Aresti nire ispiluetan ni harenetan baino. Idazle handien pribilegioa da hori, baina hori askoz beranduago jakingo nuen.

Nire bizitzako beste ertz asko bezala, magnetofono batekin hasten da ipuina. Astunak ziren magnetofonoak orduan. Eta telefonoak ere bai, pisutsuak oso. Ahaztu egin zaigu zein astunak ziren, zein neurritaraino zuten altzarien nor-tasuna musikak edo —emango didazue hitza erabiltzeko gutizia— urrutiz-kinaren txirrin-hotsak. Magnetofono batek, telefono batek, Calvados botila batek adina pisatzen zuten gutxienez. Calvados botila bete batek adina, ulertzen da. Ez zen txantxa. Normandiako sagar-likore serio hura dzanga-dzanga edatea ere ez. Arestik laket omen zuen. Langile askok goizean goizetik eskuetan lan-tresnak hartu aurretik hartzen zuten pattarra. Beste garai batzuk ziren: edale sendoak sortzen zituzten garai sendoak.

Magnetofonoan aurrera eta atzera zebilen kasetea —nolako kaseteak, nolako magnetofonoak!— 1979koa zen eta urtea, 1985ekoa, asko jota. Arestik hamar urte zeramatzan hilik, nik bizirik neramatzan berberak. Bizitza ez da errelebo-lasterketa, jakina, baina gauza hauek markatzen gaituzte apur bat. Zinta hura Oskorri izeneko talde batena zen, kaxa gorria zuen eta azala koloretsua, eta kasete hartan bazen bereziki intrigatu eta dibertitzen ninduen kantu bat, astoarena. Leloa gogoraerraza zen: «Kristau prestu bat bailitzan / asto bat dago elizan». Gure familia elizkoia ez izan arren, erabat harrapatu ninduen kantuz kontatzen zen ipuintxo intrigante hark, eta estimatu nuen bere izaera tragikomikoa. Agian, bizitzan lehen aldiz, gerora hainbeste maite izan dudan ironiaren zentzua erne zitzaidan une hartan? Auskalo. Ez ziren hitzak soilik, musika ere halakoxea baitzuen, astoen arrantzak-eta imitatzen zituen, estri-dentziak erritmo biziei gainjarriz, biolin, gitarra, *wah-wah* eta marru... Marabillosoa kantua. Hain hitz gutxitan asto ilustre baten bizitza konta zitekeen, beraz, garbi eta klaro, akabu beltzeraino? Bai, nonbait. «Buztana altua eta /

korotik erori / bertan akabatzen da / ez delako txori / zerura jotzen eta / Aita San Pedrori / zer moduz gustatuko / asto nabar hori».

Bertso haien egilea Gabriel Aresti Segurola izeneko norbait zela jakin nuenako, igaroko ziren, gutxienez, beste hamar urte. Telefonoak, magnetofonoak eta idazmakinak sendoak ziren. Garaiak ere bai. Baina kantuen hitzen egileak gaur bezain ezezagunak, lausoak, espektro ikusezinak. Mamu bilakatzeara da maisu handien beste pribilegioa. Baina hori ere askoz beranduago jakingo nuen.

✱

Poesia idazten hasi nintzenean maite nituen Pablo Neruda, García Lorca-ren *Poeta New Yorken* eta Itoizen kantu guztiak. Besterik? Besterik apenas, apenas bainuen besterik irakurri. Ikastolan erakutsi zizkigutenen artean, Lizardiren «Zuhaitz etzana» ez zegoen guztiz gaizki, baina benetako izarrak gaztelaniazko eskoletan zeuden: Edgar Allan Poe, Mary Shelley, Julio Cortázar... Halako batean, Aresti tokatu zen: «Nire aitaren etxea», zer bestela. Hizkuntza askotara itzulita omen zegoen. A, beraz, poesiak bidaiatu egiten du? Euskal poesiak ere bai? Deskubrimendu bat izan zen. Harrotzeko arrazoi bila zebiltzan gure irakasle koitaduak, guk halatsu jarraitzen dugu: harro eta herri. Aitaren etxe hori, azaldu zigutenez, euskara omen zen. Hurrengo egunean, ordea, «putzu sakon eta ilun bateko ura» ere euskara zela esan ziguten. Baina... ura zen euskara ala harria zen euskara, zertan geratzen ginen? Hamalau urte dituzunean erantzun sendoagoak behar dituzu... Eta orduan jarri ziguten eskuetan mailua: «Poesia mailu bat da». Hara, horrek ez zuen itxura txarrik. Gutxienez esaldi hark jar gintzakeen klasean Sex Pistols edo New York Dolls entzuten zuten txupa beltzeko errepikatzaile *maloteen* mailan.

Geroago jakingo genuen poesia erreminta-kaxako lanabesetara ekartzeko ahalegina ez zela deus berria: Gabriel Celayak «etorkizunez betetako arma» bat zela esan zuen eta Kafkak, berriz, literaturak «barruan dugun itsaso izoztua

puskatzen duen aizkora» beharko lukeela izan. Idazten duen jendea jende harroa dela uste da, baina ez da egia inondik inora. Konplexuz beteta gaude. Idazleak gara, baina gurago genuke arotz: eskuekin lan egiten dugula gogorazti nahi diogu munduari eta gure lana baliagarria dela, edo, Arestik erabiltzen zuen hitz bat baliatzeagatik, «frutakorra».

Idazlearen tragedia da jakitea hitzak ez direla ia inoiz aski. Baina *shhh!*, ez esan inori.

✱

Aresti editore lanetan ere ibili zen. Ez dago ispilu-lanak egingo dizkizun editore zintzo bat topatzea bezalakorik. Hamazazpi urte dituzunean hartzen dituzun zorrak ez dira sekula kitatzen. Eta nire editoreak zioen poemak azukre-koxkorrak kafe berotan bezala urtzen zitzaizkidala. Lehen lerroetan, bost hitz; hurrengoan, hiru; gero, bi; gero, bat... Gero, ezereza. Poemek esaten zutena ere halaxe, lausotu eta desagertu egiten zela. Ez zutela ezer, ez gozotik ez gazitik. Eta gainera, egiak esaten hasita, ez nuela deus esaten... Normala. Zer kontatu behar nion munduari hamazazpi urterekin? Gero, Arestiren poema bat erakutsi zidan editoreak. Hark ere hitz gutxi neurtitz bakoitzeko, baina beste gauza bat zen, aizue: irakurtzen zenuen poema goitik behera eta, hara, iruditzen zitzaizun behetik gora egiten zuela, katapultatuta batek bezala. Nola lortzen da hori? Agian Anjel Lertxundik azaltzen duen moduan: «Poetak daude beren baitara biltzen direnak, kontzentrikoak, altzorakoak; poetak daude eszentrikoak, espantsiboak, eztanda bat bezalakoak. Azken klase honetako poeta zen Aresti. Mailukada batek ateratzen duen hotsak bezala bere tokia hartzen duena irakurlearen inguruan».

1992a zen eta Arestik hamazazpi urte zeramatzan hilik, nik bizirik neramatzan berdina. Aurkeztu nion liburua ez zuen editoreak bere hartan argitaratu. Eta eskerrak. Xabier Aldai izeneko nire adin bereko gazte bati buruz hitz egin zidan, hori bai. Hauxe izan zen editoreak seinalatu zidan Aldairen lehen poema:

HAU DA AZPEITIA DIOT

Hau da azpeitia diot eta
ez naiz lotsatzen
ostikoz jotzen dut haizea
ezpain artean ditut gordetzen
antzinako zizareen etsipenak
hontzen ulu eta habiak
eta ez naiz isiltzen ez
ez naiz isiltzen
ez bada ozenki mintzatuz

hau da azpeitia diot
kuriostateaz begiratzen ditut
zubiz lepa-estuturiko ibai herdoilduak
betzulo beltzen galdera ikur keinu
eszeptikoak etxe zahar etxe berriak
rutinaren ke zutabe beltzak zeru zaharrak zeharkatzen
aiton-amonak helduak gora eta behera
kez lohituriko oroitzapenak narraztatzen

[...]

hau da azpeitia diot
tabernek jan dituzte herri honetako
gazte uniformatuen arima jolas agnostikoak
hauek dira azpeitia taberna azkoitia
taberna euskadi taberna
mundu osoa azpeitia taberna da!
hau da azpeitia bai
hau da azpeitia diot
hemen ama da semearen heriotza jakiten azkena

hau da azpeitia diot
tabernatik irtenez¹

Jo eta ma utzi ninduen. A zer poeta. A zer editorea. Maltzurra ere bazen nire ispilua. Abailduta utzi ninduen. «Baina ez kezkatu», bota zidan gero, animatu alde: «Gabriel Arestiren poema batean inspiratu da Aldai». Horrela bai, pentsatu nuen. Liburu beraren atal ezberdinak idazten ari gara denok. Eta Arestirena irakurri nuen:

Hau da Bilbo, esan zuen gizonak.
Kapela zuria zeraman gizonak, eta
Hau da Bilbo, esan zuen. *Hau da*
Pinturaren Museoa, esan zenuten.
Peut-être, esan nuen, ez dakit.
Ez nekien. Ta zer? Ez naiz lotsatzen...

Ni bai, lotsatu nintzen, goitik behera irakurri eta behetik gora datozela diruditen poema haiek irakurtzean. Arestirenak eta Aldairenak.

Lotsatzen garelako ere bagara, edo bihurtzen gara, hobeak.

✱

Joan dira urteak, berrogeita hamar, eta irakurri ditut Arestirenak goitik behera eta behetik gora. Gutunak ere bai, debozioz. Murgildu naiz bere garaian. Usaindu ditut labe garaiak. Calvadosik aspaldi ez dut dastatu. Alkohola, dosi eta botila ttipiagotan orain. Dena da arinagoa. Euskaldunan, nork esango zuen, biola gehiago eta mailu gutxiago. Euskaldunok, literatura gehiago eta aizkora

¹ ALDAI, Xabier (1993). *Bala zeru urdina*. Susa.

gutxiago. Kafkaren heina munduak jartzen du. Txunditu ninduen Jon Kortazarrek eta Paulo Kortazarrek atondutako *Mailu batekin: biola batekin* izenburuarekin Aresti Lizardi sariketara² aurkeztu zuen liburuaen edizioa ezagutzeak. Hunkitu ninduen lehiaketa irabazi ez zuela jakiteak. Batzuetan epaimahaikideek ere egiten dute editore lana. Zer epaimahai. Zer editore. Zer poeta. Mailu batekin: biola batekin... Izenburu harekin argitaratu izan balitz *Harrizko herri hau* izango zena gero, musikalagoa zatekeen Arestirekiko gure ikuspuntua, ez hain monolitikoa, ez horren kategorikoa, ez horren biblikoa, apika? Eta Euskal Herria bera, izenburu ezberdina hautatu izan balu Arestik, sinfonikoagoa zatekeen, akaso, soka laukote baten antzekoagoa, arinagoa? Liburu batek izenburu bat edo beste izateak funtzionatu lezake herri baten historian partikula-azeleragailu bezala? Ez dakit, agian fede lar diogu literaturari.

Hunkitzen nau Arestiren izaera kontentagaitzak, bere (auto)itzulpenerako grinak. Hunkitzen naiz jakiten dudalarik Aresti sarri-sarri aldatu zela lanez, nola bere denbora karioa zen baina ez zion inork ordaintzen, nola ez zuen poeta handi hark denbora-bat-norberarena, edo, nahi-adinadenbora-nork-berea-nahieran-egiteko... Hori ez da aldatu, Gabriel. Eta, hala ere, zenbat gauza egin zenituen. Eta zer arreta eta zer maitasun ematen zenien zure kolegei. Eta zer abegi ona ematen zenien idazle gazteei. Juan San Martini 1967an bidalitako gutuna lekuko: «Etorkizunerako ez gaude

² 1961eko maiatzaren 27ko gutunean dio: «Lizardi saria Orixeri emana izan zaio. Komentariorik ez. Eztut aurrerantzean euskal bertso bat ere eskribituko. Hau hemen eta Patagonian dakite. Asperkundearen aitzakiarekin presentatzen dut dimisioa...». Hori egin eta aurrerantzean «kontulari ona, eta *pater familias* ezin hobe» izateko asmoa adierazten du. Paradoxikoki, handik gutxira Orixe hil eta sari bat sortuko dute haren izenarekin; Gabriel Arestik irabaziko du. Mendeku poetikoa? Arestik idazten jarraitu zuen, jakina. Litekeena da Arestiren ahotsa profetikoa izatea, baina bere promesak ez zituen, zorionez, beti betetzen.

bakarrik eta horregatik izan behar dugu inoiz baino Kixoteagoak. Gazteak eta gazteagoek behar gaituzte». Irati Jimenezek jaso zuen berriki ideia. Eta beranduago, beste gutun batean, gaztelaniaz: «A la juventud hay que darle un amplio margen de confianza y de impunidad (recuerda que nosotros ya empezamos a dejar de ser jóvenes)». Hogeita hamasei urte zituen hori idatzi zuenean.

Hunkitzen nau bere lanen kopiak tipula-papera eta kalko beltzak erabiliz makinaz jo eta lagunen etxeetan uzten zituen Aresti hark. Egunkarietako erre-dakziora sartu eta literatur kritikariek esekitokietan utzitako gabardinetako patriketan ezkutuan bere liburuak uzten zituen Jorge Luis Borges hasiberri hura ekartzen didate gogora. Itxaropena eta xalotasuna. Lehiaketetara aurkeztu eta irabazten ez zuen Gabriel, biolaren eta mailuaren artean aukeratu ezinik, biola jotzen dutenek ere eskuekin lan egiten dutela ahaztuta, behar-bada, edo eskuekin baino gehiago hatzekin, eskuek hatzak dituztenez eta zehaztasuna denez idazlearen mandatura. Mailua eskuekin, baina biola hatzekin, ala? Tragikoa ere bada hau guztia. Kontua grafikoki azal liteke oso erraz: mailu batek birrin lezake biola bat, baina biola batek nekez mailu bat. Arestik belarri txarra zuela ere irakurri izan dugu. Musikarako izango zen, hitzen hauturako ezin liteke hoberik aurki.

Arestiren kode poetikoari buruz zerbait esatekotan, esango nuke software librearen antzekoa dela: hura irakurtzen duen edonork sentitzen du formula hura berrerabil dezakeela bere kasa (Bilboren ordezkari *Azpeitia* jarritz, demagun). Ez ditu bere ideiak bakarrik eskaintzen, bere egitura gardenak eta bere joskura klaroa ere uzten dizkigu guk ibilgailu bezala erabil ditzagun. Eta ez dut uste hau denik soilik «Oteizak listoentzako eskulpitu eta Arestik ton-toentzako idazten zuelako», zenbaitek esan izan duten bezala. Jon Juaristik aipatu izan du *Harri eta herri* eta *Euskal Harria* euskara ikasteko metodo mozturatuak zirela, eta agian egia da, baina ez hori bakarrik: poesia idazten ikasteko metodo partikularrak ere baziren bere liburuak.

Denaren premia genuen, dugu, izango dugu, Gabriel. Harritzko euskararena, harri hori higitzen duen urezko euskara korrientearena, euskal musikak barreiatzen dituzten letragile lausoen airezko euskararena... Eta zuk gutunen amaieran igortzen zenituen musu bigunen premia ere bai, noski.

Zure lanerako gaitasun izugarriaz gain, zure ironia preziatzen segitzen dut oraindik. Maite ditut zure hitzaurre apokrifoak, besteak lotsarazteak ere hobeak egiten gaituelako batzuetan. Demagun hau: «Automobilak ugari / autobusak eta trolebusak; / aparkatzeko tokirik ez. / Problema tremendoa, / gure gaurko / problema au! / nun aparkatuko / ote gera / laister / euskaldunak? / [...] / Baskuentze klaroan / ari gera / gaur / olatu berriko / Beatles / gazte / ulesapa / luzeak». Non aparkatuko ote gara laster euskaldunak, Gabriel?

Non aparkatuko ote gaituzte?


Maite dut aitaren etxearen defentsa sutsua baino xeheagoa egiten duen beste Aresti hori, «etxe zaharraren teilatuaren/ azpian iraunen dut...» dioena; poeta bat maitatzen dituen baita bere ganbarako hondakinak ere. Aurrien azpian kukuturik irauten duena. Aurririk ez baitzen falta zure Indotxinan, Vietnamen, *negroen* ghettoetan, ijitoen txaboletan³. Gaur ere ez da falta, irakurri, bestela, berripaperak.

Baina *Pérez y López. Marmolistas. Derio* hitzak ahoskatze hutsak endorfinak askatu eta *in the mood* jartzen nau. Badakizu zer den *in the mood*, ezta, Gabriel? Badakizu zer den *hype*? Bai, horixe badakizula, itzultzailea ere bazinen eta! Nola eman zizun denbora hainbeste lan egiteko? Dibertituko zinatekeen franko eta harrituko erruz telefonoak horren arinak diren garaiotan zeinetan

³ Desolagarria ere bada 1967an israeldarrek egindako sarraskien ondotik Arestik idazten dituenak gaur irakurtzea: «Bakarrik naiz, zeren eta nire inguruan ez dituzte palestinarrek defenditzen».

magnetofonoa duten urrutizkinek inkorporaturik. Entzun duzun ber: ez da garairik zoroa ez denik. Badakizu zer den *autotune*? Tira, Calvados batekin azalduko dizut hurrengoan. Zer euskara. Zer Euskal Herri. Zer kantari. Zer poeta. Zer garai.


Izan gaitezen inoiz baino Kixoteago.



*Sonia
Gonzalez Fernandez*

Barakaldo, 1977

Agian



Esadazu, Gabriel, zenbat paper
pilatzen ziren zure bulegoko
mahai gainean? Hortxe
imaginatu zaitut askotan,
hautsontzia beteta, numeroak
egiten, betaurrekoak lantzean
behin erantzi eta sudur-zubia
igurzten.

AGIAN

Agian, trenbide eta errekaen parean altxatzen zen etxe hartako goiko pisuko terrazatik buzo azulen joan-etorriak ikusi ahal nituelako egunero. Agian, nire haurtzaroa ke beltz artean eman nuelako, fabrikek, txanda aldaketa bakoitzean langileekin egin bezala, tximinietatik okaka botatzen zuten bafada zikin eten-gabeen erasopean. Amak egunero pasatu behar zuen moltsoa barandetatik eta sekula ez zen nahikoa, etxeratutakoan, ume aurpegian itsatsirik eramaten nuen brillantina gris moduko hura garbitzea bezain alferrikakoa.

Zer ginen gu? Nor ginen gu? «Arratoiak Bizkaian» kantatzen zuen Eskorbutok 80ko hamarkadaren hasieran. Edozein kasutan, ingurura begiratu eta zenbaitek marrazten zuten Euskal Herria ez zen inondik ageri. Ez txistu, ez danbolinik. Ikusiak ere ez ginen. Ez da harritzekoa. Sama egingo nuke, sasoi hartan eta arinagokoan, Bilbo Handia andaluziar, extremadurar eta galiziarrez betetzen hasi zenean ez zela batere atsegina begirada gugana zuzentzea. Halaxe konturatu zinen zu, Gabriel, hori ez zela Euskal Herria, erdal herria baino.

Arbasoen ondarea zaindu eta nolabaiteko esentzia bermatu behar omen zen. Nik ere kantatu dut halakoak iradokitzen zituen abestiren bat herrietako jaietan. Baina ikuspegi baztertzailer hori ez zen bidea, ezin izan. Ezin da. Zerk bereizten gintuen? Folkloreak? Odolak? Abizenek? Belarrien tamainak?

Giltza euskara zela argi ikusi zenuen. Zer da Euskal Herria, euskararen herria baino? Momentuko eztabaida sutsu horiei guztiei eskerrak ematen dizkiet, zeharo itxita ez egon arren, ateak parez pare zabaldu zirelako. Euskalduna izateko, borondatea baino ez da behar.

Hala ere, ez dut nik ukatuko arbasoen ondarearen ezinbestekotasuna. Hemen ere sentimenduz kantatu izan zaie Jaéngo andaluziarrei, oliba-biltzaile

harroei, eta bihozminez galdetu ea olibondo haiek norenak ote diren (erreparatu beharko genuke ea gaur-gaurkoz nork biltzen dituen olibak hango parajeetan). Eta egin denean, sentimenduz egin da, ulertzen delako, han zein hemen, desjabeturik eta nagusiaren apetaren menpe biziraun behar duen nolabaiteko talde-kidetza. Horrek batu gaitu menderik mende, herria eta sasoi historikoa edozein dela ere: enperadorearen, erregearen, jauntxoaren, lurjabearen, enpresariaren, bankariaren, kapitalistaren onurarako existitzen den partearen parte izatearen kontzientzia, gure arbasoen ondorengoak izate hutsagatik datorkiguna.

Ez ginen ez kresala, ez garoa. Gurasoak, beharbada, bai. Oso bestelako usaina zerion kresala edota kolore erreagoa zeukan garoa ekarria zuten azalean. Baina gu ez. Gu burdinari omen egiten zioten eskulturen uger artean jaio ginen eta, hala, Larrearen *Samotrazia*-tik Oteizaren *Hutsunerako konbergentzia*-ra korri eta olga ibiltzen ginen Barakaldoko Foru Plazan, nor zen Larrea, nor zen Oteiza, foruak zer ziren jakin baino askoz aurretik.

Agian, herri honen iruditeria kolektiboa osatu beharra zegoela ezinbestekoa gertatzen hasi zenean, hortxe zeundelako zu. Hain zen premiazkoa, hain zen urgentea... Errealitate berria zen, oraingoa bezala, mundua mundu denetik herriak berrituz eta osatuz joaten dira eta. Errezeloak ondo erantzi behar ziren hangoa eta hemengoa batzeko, denak bertokoak ginela, garela, direla ikusarazteko.

Egunero laguntzen ninduen erreka berberaren uharetik paseoan ailegatu al zinen Zorrotzako portura? Hantxe, Anton eta Gilen. Parez pare. Aldarrika, jatorria gorabehera, aldarria zelako funtsa. Baina ez dira orduan irudikatu zenituen langile haiek nik ekarri nahi ditudanak.

Yuriana eta Goizargi aurkeztu nizkizun 2023ko Loraldian. Ez al dituzu gogoratzen? Yuriana, eguzki eta oihanaren hizkeraz aritzen den andre beltzaran hura, bere umeak itsasoaren bestaldean utzita, inoren umea eta inoren etxea

zaindu behar dituen. Eta Goizargi, erresidentziako erabiltzaileekin hitz egiteko, eurekin penak eta poztasunak konpartitzeko denborarik ez daukan Goizargi, pertsonak zaintzea muntaia katean egotea bezalakoa bailitzan. Hantxe biak, Ezkerraldetik Eskumaldera, Bilboko metroan.

Ikusten duzunez, gauza asko aldatu dira, baina funtsezkoenak bere horretan dirau. Izaki humanoak izaki humanoa esplotatzen du oraindik. Otsoen kontra, lukurreriaren kontra, justiziaren kontra defendatu beharra dugu oraindino.

Pobrea pobrearekin mokoka. Ez dezagun gorantz begiratu, ez dezagun idoro biziminak nondik datozen. Orduan, trenak ekarrinikoen kontra; orain, pateran etorrinikoen aurka. Ausardia behar izan zen orduan argi eta garbi lerrokatze, euskal munduan askok eta askok entzun nahi ez zuten hori idazteko.

Agian, inork gutxik nahi zuelako langile tristeei eta lurrean kondenatuei erreparatu. Agian, erraieran zerbaitek esaten didalako nekez garela elkargatuko. Agian, «indazu albiristea», hainbatentzat sorgin berbak diren arren, ondo baino hobeto ulertzen ditudalako nik. Bai, maisu-maistra onak izan ditut.

*

Hala, euskarazko abezea eta John Brown indio txiki bat zela ikasi ostean, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* nobelako protagonista bezain galdurik ibili eta gero, azkenik nire zain aurkitu zintudan. Agian, horregatik.

Adituek diote kortex prefrontala guztiz eraturik egon arte ez ditugula arriskuak behar bezala neurtzen, emozioak arrazoiak baino pisu handiagoa daukala sasoi horretan. Esan liteke bizitza markatu ahal duten ondorioez libre antzean ibiltzen dela. Agian, horregatik egin genuen orduantxe, handik aurrera gure pauso oro gidatuko zituen hautu pisutsuari tamaina hartu ez geniolako. Eta egin, egin genuen, euskaldun bihurtu ginen.

Nik ere ez nuela nintzena izan behar idatzi nizun aspaldi. Gogoratzen duzu?

Egin genuen karea hormetatik
jausten den besteko ganora gutxiz,
bezain arduragabe,
gure bizitzek harrezkero berdin edo antzera
jarraituko luketela pentsatuz
akaso.

Eta ez, arras ezberdinak izan ziren ordudanik. Zelan izango, bestela? Hasteko, ez da gauza bera hizkuntzak ikastea, behar denerako eta inorekin komunikatu ahal izateko, edo ama hizkuntza lagatzea, amabitxi hizkuntzaren besoetara salto egiteko. Azken hori, zalantza barik, ekintza bortitza da, are bortitzagoa nahita eta kontzienteki egiten denez geroztik, zelan edo halan, nahi eta nahi ez, bide horretan umezurtz ere bihurtu behar delako.

Aspaldi irakurri nion norbaiti «poeta lakoniko» deitzen zizula. Kontatu behar zenuenaren urgentsia eta laztura gorabehera, ez al da hori gure hizkuntza hizkuntza mutilatua izatearen ondorioetako bat? Sarri galdetu dizut, sarri galdetu diot neure buruari, zelan gainditu txikitako kanta eta joko, amamaren berba zahar, familiaren historia kontatzen duten esamolde eta atsotitz bako hizkuntza honek boligrafoari jartzen dion galga, ea inoiz atzean uzten ote den beti trikimailu eta amarruetan ibili beharreko sentipen hau.

Eta, orduan, askatasunean irabazi dugula konbentziarazten dut neure burua. Ez diogula ezein berbaerari ezer zor, hutsetik eraikiz goazela idiolekto pertsonal hau, beharbada inongo berezkoa ez, baina bai berezia eta bitxia. Beti belarriak artez eta begiak zoli, altxor linguistikoen bila. Zer gusta, huraxe ostu. Pentsamendu guztiok etortzen zaizkidanetan, beste gizon bat azaltzen zait ispiluan, bilaketa honetarako grina piztu zidan gizonetako bat, bera ere nahiko deserosoa zenbaitentzat: Gotzon Garate, Gotzon-Motzon maitatua, begiak dir-dir, bera zazpi probintzietan ibilia dela enegarrenez esaka.

Eta poztasunak gainez egiten digu bioi. Esan dizudanez, maisu-maistra onak izan ditut.

Hortxe daude euskarazko berba eta molde guztiak, esperoan, norbaitek berreskuratu edo, hobeto esanda, gure kasuan, eskuratuko dituelakoan, geure noiz egingo itxaroten. Seguru nago zuretzat ere halako zer bait izan zela, ez daukat dudarik, beste batzuen artean, zure «erran» bakoitza irakurtzen dudanero. Euskaraz bizi ahal izateko, lehenengo eta behin, hizkuntza arrotz hori menpean hartu behar izan dugunok horixe egin behar izan dugulako, ezerezetik, ez ezein arbasok emandakotik, mundu oso bat eratu, mundu berri batera sartu ahal izateko.

Orain badirudi ez dela politikoki zuzena *euskaldun berri* eta *euskaldun zahar* terminoak erabiltzea eta egia da, *egia santu berdaderua* da, denok garelako euskaldunak, baina zelan egin uko, zelan ahaztu lan eskerga hori, zelan baztertu buru barruan gertatzen diren prozesu liluragarri horiek, ia miraria diren horiek? Ez zait bururatzen lorpen handiago eta aberasgarriagorik.

Baina ez dezagun denborarik gal halako koipekerietan. Euskara plazara, mundura eta dantzara atera behar zela ohartarazi zigun Etxeparek. Eta zin egin genion ez genuela utziko esparru horiek galtzen, baina, horretaz gain, askoz gehiago nahi eta behar dugula: erakundeetara, komunikabideetara, Internetera, epaitegietara, lan mundura... gainontzeko hiztunek (gure ingurukoek, behintzat) dituzten esparru guztietara; ez gehiagorik, ezta gutxiagorik ere. Baina gure hizkuntzak arnasketa lagunduaren bidez bizirauten du, memoria kolektibo historikoak gogoratzen duenetik, bederen. Euskaldun izateko hautuak hau guztia ere badakar, zainketa intentsiboko unitateko erreanimazio-mediku bihurtu beharra, gure bizitzako ekimen, jardura eta betebeharrak guzti-guztiak bizkortze horretara bideratu beharra.

Berriro eskerrak eman behar dizkizuet aurretiaz izan zineten guztioi, egin zenuten lanari esker, askoz errazago izan baikenuen ondorengook. Horixe

erantzukizuna ia dena egiteko zegoen sasoi hartan egin zenutena: hizkuntza oso bat bateratu eta finkatu. Badakit esango didazula sasoi hura ez mistifikatzeko, ezta mitifikatzeko ere, eta ez daukat horretarako asmorik, badakidalako, era berean, hainbat eztabaida gupida eta erruki gabekoak izan zirela. Baina ez pentsa eztabaidatzeari utzi diogunik.

Euskalkien eta batuaren arteko borroka lehen lerrora etortzen da tartekamarteka. Badirudi hainbatek ez daukatela oraindik argi biak direla aberasgarri, biak direla osagarri, bietan eroso bizi ahal garela, gainontzekoek euren erdaretan egiten duten legez. Eta, gainontzeko hizkuntzetan gertatu bezala, estandarrierantz jotzen joango dela ezinbestez. Eta hori ere hizkuntza baten osasunaren neurgailua izan daitekeela.

Bestalde, orain beste zenbaitek diote garrantzitsuena hitz egitea dela, eta ez dut nik kontrakorik esango, baina kantitatea ez da nahikoa hizkuntzaren kalitateaz arduratzeari uzten badiogu. Hizkuntzaren kalitatea ez delako, eta barka nazala Akademiak, baina seguru bat gatzela, zuzentasuna zuzentasunagatik; hizkuntzaren kalitatea euskal sena da, benetan euskaraz egitea eta ez euskarazko hitzez moztururiko erdaraz; egitea da, ez itzulzea. Gero eta usuagoa da, baita egunerokoan euskaraz aritzen diren horientzat ere, ez jakitea hainbat gauza azaltzen erdaraz pentsatu barik. Eta hala, edozein herri euskaldunetan, aspaldi hartu ninduen Lekeition, adibidez, euskaraz idatzitako balizko testu bat ulertu ahal izateko, aldizka, erdarara pasatzeko ariketa arina egin behar da, zer esan nahi den ganoraz ulertzeko. Ez da errieta, kezka handia baino, adierazkortasuna, jarioa eta sormena galtzen duen edozein hizkuntzak balio osoa galdu eta apalategietako hobietan etzaten den hilotz bihurtzen da.

✱

Esadazu, Gabriel, zenbat paper pilatzen ziren zure bulegoko mahai gainean? Hortxe imajinatu zaitut askotan, hautsontzia beteta, numeroak egiten,

betaurrekoak lantzean behin erantzi eta sudur-zubia igurzten. Ohetik altxatu, ordenagailu aurrean jesarri eta buletin ofizialak arakatzeari ekiten diodanero etortzen zara maiz, etsipenak hartu eta erdara zurrin horrek neuronak sikatuko ote dizkidan ezbaian nagoela. Orduan, herriarentzat ulertezin izateko helburua duen hizkera tekniko, urrun eta korapilatsua askatzeari eta edukia euskaraz azaltzeari ekiten diot, langileek samur, erraz eta eroso har dezaten. Gero, oraindik euskaldundu ez direnentzako itzulpena egiten dut, den-denak euren eskubideez jakitun izan daitezen. Ito eta poztu egiten nau, aldi berean.

Zelan irudikatzen dugun sorkuntza eta zer den benetan sortzailearen bizitza, ezta? Eta, Gabriel, zugarik diot, ez bainaiz kapaza neure burua halako ezaugarri zintzeko, lantzean behin lau berba kateatze hutsagatik. Ene! Bai, txo, ez hasi arrantzaka, arrazoia daukazu, akaso konplexuak uxatu beharko nituzke, batez ere «sorkuntza» horren debalaturik dagoen eta «eduki-sortzailetzat» telefono bat darabilen edonor har daitekeen garai honetan.

Agian, ondo ezagutzen ez nautenek pentsatu ahal dute zure ispiluan poesia soziala bilatzeari ekin izan diodala. Baina ez, poesia biluzian atsegin hartzea dut gustuko. Maisu-maistrez aritu garela, Machadoren *Juan de Mairenak* aspaldi irakatsi zidan zertan datzan hori, arbelera atera eta «Los eventos consuetudinarios que acontecen en la rúa» lengoia poetikora itzultzeko eskatu zidanean.

Ez dago gauza eder eta zailagorik pentsamendu sakon bat sinpletasunez adierazten asmatzea baino. Gustu estetikitik harago doan zerbait da: poesia bizitzaren zerbitzura jartzea da. Eta *bizitza* esatean, besteak ekartzen ditugu gogora, jaio eta segidan eta agur esan arte, besteekin, besteengatik, besteen erruz eta besteentzako egiten dugun horixe delako bizitza. Argi esan zenuen, Gabriel, zure poesia oso merkea zela, herriaren ahotik hartu zenuela debalde eta debalde eman zeniola herriaren belarriari. Biluzi, zorrotz eta zuzen, zure bihotza ezkerrean dagoela eta bertako odola gorria dela gaztigatu zenuenean bezala.

Poesiak «gure hizkuntzaren, gure euskera deseatu honen, salbazioko taula» izan behar zuela sinistuta zeunden. Eta mandatu erraldoi hau nahikoa ez balitz, kontzientziak astindu nahi izan zenituen. Transzendentziarako grina horrek betidanik liluratu nau. Azken batez, zer dira bizitzak haraindiko eginbeharrik gabe? Ez dago galdera hori, inoiz edo sarri formulatu ez duen izaki humanorik.

Eta, azken finean, zer ote da poesia soziala? Ez al dira ekintza humano guztiak sozialak, berez eta *de facto*? Ez al da poesia momentu zehatz eta herri zehatz bateko jendartearen isla, baita kultismorantz, eskapismorantz edota intimismorantz jotzen duenean ere? Ez al daitezke izan pareta biluziak ulu ozenagoak ezein pankarta baino? Ez al dute poesia guztiek jendartearen taupada kontatzen, fibrilatzen diren taupadak izan arren?

*

Agian, honengatik guztiagatik jo izan dut zure ispilura hainbestetan, heldulekuren baten xerka. Hala ere, agian, neure buruari kontatzen dizkiodan ipuin eta asmakeriak besterik ez dira, fantasma batekiko solasaldi eta berriketak, inoiz ezagutu ez zintudan zu ezin zarelako zu izan.

Agian, ispiluak bueltan botatzen didan irudia neure isla baino ez da, zurekiko elkarrizketa oro, azken batez, nahi eta nahi ez, bakarriketak direnez gero. Edo, gehienbat, elkarrizketak, beti ere beste norbaitekin.


Agian.



Iñigo Astiz Martinez

Iruñea, 1985

*Poesiaren marmarra
historiaren arnasestuan*



*Bere poemetan planteatzen
dituen korapilo etiko eta moralak
dira niretzat Arestiren lanaren
alderik interesgarrienetako bat.*

POESIAREN MARMARRA HISTORIAREN ARNASESTUAN

Proiektu etikoa da Arestiren literaturarena, eta autorearen beraren izena du truke balio bakarra. Ni. Ni. Ni. Hitz egiteko trabak baizik ez zeuden sasoi batean, Arestik enuntziazorako espazio bat eraiki behar izan zion bere buruari, eta, inguru eta sasoi erabat etsai hartan, bere grazia baino ez du hori egin ahal izateko oinarritzat. Ukondoka ari da hitz egin ahal izateko. Soziala da nitasun hori. Eta, hain justu ere, berea proiektu etikoa delako, bere poemetan planteatzen dituen korapilo etiko eta moralak dira niretzat bere lanaren alderdirik interesgarrienetako bat. Eta landu zituen alor guztien artean, esango nuke, poesian lortu zuela korapilo horiek euren konplexutasunik osoenean formulatzea.

Gaztetan ezagutu nuen lehen aldiz, haren hitzak jadanik eslogan izatetik hurbil zeudenean, eta, halere, harritu egin naiz haren obrara itzuli naizen aldiro. Eta, ondorioz, hamaika aldiz itzuli naiz Arestirengana, eta oraindik ere jarraitzen dut harengana itzultzen. Beti topatzen dut haren poesian oihartzun egiten duen hitzen bat. Eta horren froga da Adur Larrea komikigileak sortutako *Gabriel Aresti BioGrafikoa* komikirako idatzi nuen paseo poema arestiarra.

EZEZAGUN ZAIKIDAN GAUZAK

Ez duzu hizkuntzarik ulertu beharrik;
desegindako etxeak nola, hala gurutzatzen dute dena.

Yehuda Amijai

Ni ere gurutzatzen naute hemen
ulertzen ez ditudan hizkuntzek.
Bere herriko kantak abesten dabil,
adibidez, afrikar talde bat orain.

Ez dakit uzten didaten arrastorik
edo nik ere ezer uzten ote diedan,
salbu eta ez bada nire zoriona
gogoratu dudalako berriz ere
zer edertasun gordetzen didaten
oraindik ezezagun zaizkidan gauzek.

Aretxaga. Martzana. Naxa.

Lanerako bidean desbideratuta
zure sortetxe aurretik pasa naiz
eta kalkuluak egin ditut asmatzeko
zenbat Gabriel Aresti Segurola
behar diren hiri bat salbatzeko;
zeren Sodoma eta Gomorran
hamar zuzen aski baitziren, eta
halere badakigu zer gertatu zen.

Olabarria. Larreategi. Baroja.

Aleman barkua atrakatu da Abandon,
turistak: "Ich würde gern hier leben mit
der alten Schwägerin meines Bruders,
du weißt schon, die Einarmige**".
Noiz behinka gogoia sartzen zait
neure buruari postal bat igortzeko:
nik ere gogoratu behar dudalako
hemen (ere) posible dela bizitza.
"El tiempo regulín, los habitantes
ok, la gastronomía excelente".

Euskadi. Guggenheim. Iberdrola.

Behin kale erdian etzan nintzen
zeruari begiratzeko soil-soilik
eta izuz begiratu ninduen han
erosketak egiten zebilen jendeak,
nik ez nielako ezer saldu nahi.
Une horrek salbatu ninduen ni,
baina ez dakit zein den kopurua
Bilbo salbatu ahal izateko Bilboz.

Jarraitzen dut oinez, eta ez dakit.

Eskukadaka kontatu ditut jendeak
konpartitzen ditugun kaleotan
baina ni ez naiz jainko eta nahiago
ulergaitzak zaizkidan abestiek
barkabera gurutza nazaten uztea.

** «Pozik biziko nintzateke hor ni
anaiaren koinata nagusiarekin, badakizu, maingua».

Baina ez da poema hori bakarrik. Horrez gainera, hainbat erreportaje eskaini dizkiot *Berria* egunkarian, egin ditut kronikak haren poema ezagunen iturburu izandako lekuetan, keinu zuzenen bat ere egin diet haren poemei nireago ditudan beste poema batzuetan, eta Eñaut Elorrietarekin batera urtebete pasa aritu naiz haren poemak irakurtzen eta kantatzen jendaurrean —tartean, Arestiren poesian parentesiek duten lekuari buruzko gogoeta batzuekin—, baina Euskaltzaindiaren gonbitari jarraituz, oraingoan baino ez diot begiratu neure sorkuntza lanari haren ispiluan, eta onartu behar dut argi ikusten dudala haren silueta nire testuen atzealdean, eta silueta hori, gainera, nahasi egiten dela, berak bezala, euren historiarik hurbilena poesia sortzeko baliatu zuten beste hainbat poeta kuttunenarekin. Izan ere, Adam Zagajewski

poeta poloniarrek «historiaren arnasestua» deitzen zuenari adi sortutako poesia da Arestirena.

Ez da nabarmenduko niokeen ezaugarri bakarra. Horrez gainera, Arestik badauzkalako niretzat oso interesgarriak diren beste hamaika ezaugarri ere. Adibidez, askatzailea zait ditxoak, esaerak, poemak, burutazioak, koplak eta eskura topatzen duen beste edozer bere proiektu poetikora lotzeko duen gaitasuna. Erabat erabilgarri zait haren euskara eredu zuzen eta gardena ere. Eta intelektualki zein biszeralki bizipoza ematen dit bisturiaren zorroztasuna darabilen haren ironiak —«Hiltzen naizen egunean egonen da / nire lauza-
ren gainean eskribu hau: / *Hemen datza Gabriel Aresti Segurola. Goian bego. / Perez y Lopez. Marmolistas. Derio*»—. Bere lagunak eta etsaiak konplexurik gabe aipatzen ditu testuetan, eta lagun edo etsai zergatik dituen ere azaltzen du, gainera. Baina lehentxeago aipatutako historiaren lohietan murgildu eta poesia bila jotzeko duen jarrera horretan ikusten dut nik neure burua argien islatuta Arestirengan, eta hori azaltzen duten pare bat poema aipatuko ditut. Horrek ere estu lotzen nauelako haren poesiara. Batez ere, azken aldian, historiaren gaiak berak lotu nauelako gehienetan poemak idaztera.

«Josepa Mendizabal Zaldibian» poema da aipatu nahi nukeen poemetako bat. Zama historiko handiko poema da, eta hau izango da oraindik ere publiko aurrean ozen irakurtzeko zailen suertatzen den Arestiren poemetako bat. Eta, hain zuzen ere, akaso horregatik irakurri beharrekoa. Aresti «souvenirizatu» bat sustatzen tematu beharrean, nire ustez, emankorragoa delako Aresti konplexu eta konplikatu bat aurkeztea.

JOSEPA MENDIZABAL ZALDIBIAN

Etarren ama urrikariek
bakea dute merezi
bihotz-ikara izugarrian
dardaraz baitira bizi.

Etarren amek
asko sufritzen dute.
Andre hauen bihotzean
kabitzen da
munduko min guztia.
Aitak
Lemoako frentean
hil zizkieten.
Nebak
gartzelatik deserrira
ibili zaizkie
barreiu.
Eta orain semeak
kaminoetan
erortzen zaizkie
zerraldo...
Etarren amek
asko sufritzen dute,
semeak hiltzen dizkietenean
eta batez ere
semeek hiltzen dutenean...

Arrosa gorri-zuri
idien apatsek zapaldua
bezalakoak dira:
Andre urrikari hauez
urriki zaitezte...
Zeren Euskal Herria
Axularren sagarroia
bezalakoa
da.
Bere egitez ere

nekez erditzen da
baina bere faltaz
nekezago,
penazago...
Eta ETA
(lehen zen EDO)
sagarroiak bere burua
erditzera
apoderatzen duen harria
da.
Asko izan da karloez
eta arantzeez...
Hainbeste otoitz...
hainbeste ezpata-dantza,
euskal-meza,
zortziko nagusi,
alboka,
txistu...
Hainbeste hostia, alu eta potro...
Herri honi
erditzeko tenorea
tokatu zaio...
Mutilen barrabil ostikatuak
eta
neskon diti zigarroz erreak
dilatazio-minak izan dira
baina
andreon sufrimentu-moralarekin
expulsio-mina
dator.
Herri kobarde (hain balent) hau
bere libertateez

erditzen da
Santa Gurutze honetan...
Eguzkiaren ateko tortura-lekutik!
Josepa Mendizabal Zaldibian
asko penatzen da...

Aresti 1933an jaio eta 1975ean hil zen. Eta bi data horiek aipatze hutsak erakusten du bere bizialdi osoa frankismoan igaro zuela, eta, justu, Euskal Herria aldaketa fase esanguratsu baten atarian zegoenean hil zela; Franco hil baino hilabete gutxi batzuk lehenago, hain zuzen ere. Eta, hain justu ere aldaketa sasoi horren atariko moduko bat da poema hau nire ustez; gerora hainbat hamarkadaz luzatuko zen fase historiko eta politiko baten atarikoa. Eta giro horretan Arestik planteatzen duen korapilo morala da, niretzat, poema honen indargune nagusia. «Etarren amek / asko sufritzen dute, / semeak hiltzen dizkietenean / eta batez ere / semeek hiltzen dutenean».

«Josepa Mendizabal Zaldibian» poemaren eskuizkribuak garden erakusten du Arestik azken unean gehitu ziola testuari lau lerroko ahapaldi hori. Orri laukidunaren ezkerreko ertzean, gainerako poemaren zatiak baino letra txikiagoz eta behetik gora idatzi zituen esaldi horiek, poeman hartu behar luketen lekua markatzeko gezitxo eta guzti. Baina azken unean gehitutako kolpe horrek egiten du poema hori ez zirkunstantzial, baizik eta iraunkor. Ez duelako gertakari historiko zehatz bat kontatzen. Hori egin beharrean, poetak, lerro horien bidez, gertakari horren oihartzun etikoan sakontzen du poeman, eta, horregatik, aipagai duen une zehatzaz harago luzatzen du haren oihartzuna.

Datarik gabe dator poemaren orria eskuizkribuan, baina kokapena gehitu zion orriari behealdean, testua «Eako Goikalean» idatzi zuela zehaztuz, justu sinaduraren gainean. Eta horregatik dio Karmelo Landa ikerlariak poema 1974an idatzitakoa dela, zeren eta idazleak urte hura osorik eman baitzuen

Bizkaiko kostaldeko herrixkan, bai eta 1975aren zati bat ere, udazken partera gaixotasunak Bilbora joatera behartu zuen arte. Eta, beraz, garaia eta poema-ren gaia ezaguturik, poemak inspirazio iturri duen gertakaria ere identifika daiteke. Hori aipatu zidan Landak, eta datu horri tiraka osatu nuen horri buruzko artikulua *Berria* egunkarirako.

Itxura guztien arabera, ETAk sasoi hartan Madrilgo Rolando kafetegian egindako atentatuak eraman zuen Aresti poema hori idaztera. Eta aski esanguratsua da datua, atentatu hark eragin zuen inarrosaldiagatik, eta atentatuaren beraren indarragatik ere. ETakoek hamahiru pertsona hil zituzten leherketarekin —hietetako hamabi zibilak—, eta ezerosotasun handia eragin zuen baita taldearen ordura arteko ekintzak babesten zituztenen artean ere. Mugarri izan zen gertakaria, eta, bistan denez, Arestiren koadernoraino heldu zen haren oihartzuna.

Aresti hil ondoren eman zen argitara poema, musikatu egin zuen Imanol Larzabalek, eta hamaika aldiz baliatu dira haren lerroak *euskal gatazka* deitutakoari eskainitako iritzi artikulua eta hitzaldietan. Baina Landak aipatu eta *Berrian* zabaldu artean, nik dakidala, ez da poema horren iturburu historiko zehatzik aipatu, eta aipamenak kokatu egiten du poema. Eta Arestik material historiko problematiko eta konplexu horrekin poesia nola egiten duen da niri ezin interesgarriagoa iruditzen zaidana.

Zehazki, 1974ko irailaren 13an lehertu zuen bonba ETAk, 14:35ean, esan bezala, Madrilgo Rolando kafetegian. Hamabost kilo dinamita inguru eta metraila baliatu zituzten horretarako, eta inongo abisurik eman gabe ez-tandarazi zuten. Atentatuak hamahiru lagun hil, eta, horrez gainera, 70 lagun baino gehiago zauritu zituela gogoratzen du Emilio Lopez Adanek *Borroka armatua Euskadin* (2021) izeneko liburuan. Taberna hura Puerta del Sol inguruan zegoela gogoratzen du bertan; Correo kalean zehazki, Dirección General de Seguridad (DGS) izeneko egoitzatik gertu. Eta, Lopez Adanek bere liburuan aipatzen duenez, badirudi, talde armatuak taberna hura poliziaz eta

gobernu frankistako goi kargudunez beteta egongo zela uste zuelako jarri zuela bonba bertan. Horien aurka jotzea zen helburu nagusia, beraz, baina bistan denez, eta atentatuaren biktimen zerrenda ikusita, okerra zen suposizio hori.

1973an Carrero Blanco hil zuen ETAk Madrilen, eta, Lopez Adanen hipotesiaren arabera, «Carrerorena kitatzeko» modu bat izan zen Rolando kafetegikoa. Hitzez hitz hala dio liburuan: «Madrilgo laguntzaile batek edo batzuek bultzatu zuten, hain segur, DGSen kontrako operazioa. Hara ziren beren kideak eramanak eta torturatuak, han zen errepresioaren sinbolo handia» (119. or.).

ETAk ordura arte egindako ekintzarik gehienak baino nabarmen handiagoa izan zen atentatu hura, eta erakundeari ez zitzaion erraza egin hamabi zibilen hilketaren kargu egitea. Horregatik, hasiera batean, ETAk ofizialki ez zuen atentatua bere gain hartu, eta hainbat komunikatu plazaratu zituen hori adierazteko. Lehergailua aktibatu eta bi egunera egin zuten publiko lehen komunikatua. «Dena ez da perfektua eta garbia borrokaldian. Iraultzak ere ekintza gogorrak eta tragikoak baditu. Madrilgo eztanda, arduraduna edozein dela ere, etorkizun baten atarikoa da agian, eta epe ez oso urrunean antzeko arazoei ekin beharko genieke. Askatasuna oso altu kotizatzen da: ez dezagun inoiz ahaztu».

Komunikatu gehiago egon ziren gero, dirudienez *polien* eta *milien* arteko eztabaida eta ezinikusiek ere sustatuta, baina testu horietan guztietan talde armatuak aldiro ukatu zuen du bere parte hartzea.

Estatuak ere berehala erantzun zuen, eta, besteak beste, Madrilgo ezker mugimenduko hainbat kideren aurka egin zuen poliziak; Eva Forest idazlearen kontra tartean. Atxilotu eta torturatu egin zituzten. Eta poliziaren jardun bortitz hori ere aipatzen du Arestik poeman. Atentatuen aipamenik egiten ez duen arren, poeman esplizituki aipatzen ditu militanteen aurkako hilketak

eta torturak, eta Madrilgo Puerta del Sol inguruko komisaria bati egindako aipamen zehatza ere badakarrelako testuak. Hor dagoelako «Eguzkiaren Ateko tortura lekua»-ri egindako aipamena. Garai hartan ezagun zenez, tortura leku esanguratsua baitzen Puerta del Sol inguruko komisaria hura.

Baina Josepa Mendizabal dator tituluan, eta Zaldibian kokatzen du, gainera. Eta poema Rolandoko atentatuarekin lotzen dute tituluko bi datu horiek ere. Zeren eta, ETak bonba leherrarazi eta hurrengo egunetan, Juan Manuel Galarraga zaldibiarra aipatu baitzuten egunkariek atentatu haren egiletzat. Ezinezko egile bat zen, ordea. Ordurako Galarragak urteak zeramatzalako Frantzian erbesteratuta. Are gehiago, prentsan haren izena bolo-bolo zebilela jakin bezain laster, bere kabuz joan zen bizitoki zuen herriko polizia etxera, jendarmeez bera han zegoela ziurtatu ahal izan zezaten, eta atentatu hartan inolako parte hartzerik izan ez zuela frogatzeko.

Galarragak Radio Bilbaora egindako deiaren berri ere jaso zuen garaiko prentsak. Haren hitzak dira ondorengoak: «Albistearen berri izan nuenean bizitoki dudan departamenduko frantziar komisariara joan nintzen, eta lekukoen laguntzarekin Madrilen inolako ekintzarik egitea ezinezkoa zitzaidala ziurtatzen duen dokumentua sinatu nuen, 2.000 kilometroko distantziara nengoelako».

Edonola ere, Landaren ustetan, Arestik ere ikusiko zuen Galarragaren izena periodikoetan, eta, pertsonalki ezagutu ez arren, horregatik amaitu zuten Galarragaren amaren izen-abizenek poemaren tituluan. Poliziak milioi bat pezeta eskaini zizkion hari buruzko informazioa zuen edonori, eta prentsaurrekoa ere antolatu zuen erabakia iragartzeko. Galarragaren izenaz gainera, orduan, haren gurasoen izenak ere aipatu zituzten. Eta, beraz, gaiari buruzko albisteetan ere, hor agertzen ziren bai aitaren izena (Ignacio Galarraga), bai eta amarena ere (Josepa Mendizabal). Eta hortik hartu zuen Arestik ere poemarako titulua seguruenik.

Garai historikoari lotuta dago Arestik ETA ulertzeko duen modua ere.

Arestik 1975ean Xabier Kintanari eta Joseba Tovarri emandako erantzunak aipatu zituen Landak hori azaltzeko. *Euskaldun berriekin euskaraz* (1975) libururako egindako inkestan datoz poetaren hitzak, eta Landaren gidaritzapean Arestiren poemak, antzerki lanak, itzulpenak, hitzaldiak eta lan argitaragabeak batzen dituen Susa argitaletxearen hamar liburukiko bilduman ere topa daitezke; artikulu, hitzaldi eta gutunei eskainitako atalean, hain zuzen. Gogoeta politikoeekin erantzuten dio Arestik bertan inkestagileek euskararen etorkizunari buruz egindako galderari, eta hor dator talde armatuari buruzko poetaren iritzia ere. Garden: «ETA, askorentzat esperantza bat da, baina dena dela, alderdi probisional bat da, eta normalitate demokrata batetan ez du objektiborik ukanen».

Etorkizun horren atarian dago dena poema horretan. Eta bada poema atentatuarekin lotzen duen beste datu bat ere. Arestik poeman aipatzen duen Santa Gurutzea ez baita erreferentzia fisiko edo sinboliko bat, baizik eta erreferentzia tenporal zehatz bat. Tradizioaren arabera, kristauek irailaren 14an egiten baitiote gorazarre Gurutze Santuari, Jesus gurutziltzatu zuteneko gurutzea ohoratzeko. Eta ETako ekintzaileek irailaren 13an leherrarazi zuten Rolando kafetegiko bonba; Santa Gurutze bezperan, alegia. Haren ondorenean ari da Aresti.

Bestalde, Arestik poemak idazteko zuen moduaren erakusgarri ere bada «Josepa Mendizabal Zaldibian». Zirrimarratutako ahapaldiak eta ertzetan gehitutako pasarteak esanguratsuak izanik ere —«Etarren amek / asko sufritzen dute, / semeak hiltzen dizkietenean / eta batez ere / semeek hiltzen dutenean»—, ziurra baita poetaren jarioa. Gehiketa eta kenketa gutxi horiekin ere, hasi eta buka, ia ekinaldi bakarrean idatzita dago testua. Eta, akaso, bizitasun horregatik beragatik eusten dio hain bizirik, hura idatzi eta mende erdira ere, jatorri izan zuen mundu konplexu, geruzaz bete eta kontraesankor horren lekukotzari, poema ez baita kasualitatez amaitzen testua etorkizunerantz za-

balik uzten duten eten-puntu horiekin: «Josepa Mendizabal Zaldibian / asko penatzen da...».

Etorkizunaren atarian dago hor Aresti, eta gaur eguneraino luzatzen dira hiru puntu horiek. Ia-ia literalki. Esan dugunez, atentatua gertatu eta berehala zabaldutako komunikatuetan ETAk ez zuelako bere egiletza aitortu, baina bai 2018an, behin betiko desegino zela adierazteko kaleratutako azken komunikatuan. Alegia, ez jadanik Arestiren denboran, baizik eta, ia bost hamarkada geroago, jadanik gurean.

Testu hau prestatzen ohartua naiz, nolabait ere Arestiren poema horrekin hasten dela azken urteetan idatzi dudan poemetako bat ere, «Herrian urtu» izeneko poema, oraingoz hemen baino argitaratu ez dena, eta ETAREN amaierari erreferentzia zuzena egiten diona. ETako militanteei egindako hainbat elkarrizketa biltzen dituen liburu bat du abiapuntuan, eta pentsatu nahi nuke, Arestirena bezala, etorkizunerantz luzatuz amaitzen dela poema hau ere, historiaz aski armaturik, eta, era berean, beste inoren orainaldirantz luzatuta.

HERRIAN URTU

ETA. Euskadi Ta Askatasuna.

Témoignages de quatre générations

de militantes et militants.

Caroline Guibet Lafaye eta Alexandra Frénod

Les éditions libertaires

Merezi izan zuela esaten dute,
galdetuz gero. Eta ez
luketela jakingo bestela
bizitzen.

Ezagutzen dute
errebolber baten hotza
—hotza?— eskuan,
denei hil dizkiete lagunak,
eta akaso, haiek ere
hilko zuten norbait

—liburuan
bakarra mintzo da argi horri buruz—.

Kartzelan eman dituzte urteak,
poliziak ikusi dituzte etxeak miatzen,
torturatu dituzte komisarietan.

Eta, aldiz, euren hitzek
piztu didate arreta:
hitzekiko duten harremanak.

Ezagun dituztelako errealitatearen lohiak,
eta, halere, aski zaielako
metafora erraz bat


gehienei
—zenbat dira, guztira?—

borroka armatuaren
amaierarekin baketzeko:

«Herritik sortu zen
eta orain herrian urtuko da».

Kontraste hori, uste dut,
moduren batean,
hizkuntzaren botereaz ere ari da

eta zuzen dut begira
begietara
erantzun eske.



Leire Vargas Nieto

Durango, 2002

*Gure hitzek
ametsak lurrera ditzaten*

*Poesia den hizkera
estrainio honek
arroztu dezala
normala dena.*

*Ez normaltasunik
ez bakerik
inor hertsatzen duenik.*

GURE HITZEK AMETSAK LURRERA DITZATEN

Idazle bat —adibidez— hiltzearen ondorioetako bat da
erantzuteari uzten diola eta irekiera horretan
askotariko esanahiak ematen hasiko gatzaizkiola haren hitz bakoitzari.

Argiak nondik jo han agertzen da isla eta era berean berreraikitzen ditugu guk
joan direnak gure begiradaz.
Ez batek bestearena kritikatu errefusatu edo agian miretsi barik
—baina aberastasuna ez al dago irekieran?
Kapitalismo berbatik urruneko aberastasun bat, esan gabe doa hori.

Ondo ikasi diot Gabrieli
egiari omen egin behar zaiola
arteak egia esan dezake
baina artelanetik beretik kanpo arteaz aritzeak ez al dakar beti
purutasun horren nolabaiteko urraketa?

Tira
hau guzti hau esateko nik nire Arestiz egingo dudala berba
ez baieztapen biribilik bilatuz baizik eta aztertzeke
hemendik begiratuta zer forma har dezakeen haren itzalak
zer ertz uzten duen agerian haren islak.
Eta hortaz Arestiz bezainbeste edo gehiago egingo dut berba
neure buruaz.

(Edonola ere lasai nago
beste norbaitek honezkero idatzi duelako “Aresti *queerraz*” EHUK eta
Gabriel Aresti Katedrak zigilatutako bilduma batean eta beraz
beti jo dezaket erreferentziara
nire irakurketa apetatsu eta arraroa defendatzeko.)

1. Nire buruaz mintzatu behar dut, hori delako (ni naizelako) hobekien ezagutzen dudana.

ninininininini

Hona
konfesio bat.

Behin poeta izateko bidea hartuta horrek edozein itxura duela ere
nire helburu frustragarriena izan da
herriaren poeta izan nahi izatea.

Hamasei urteetatik ekainean gurasoenetik joan nintzenera arte
izan dut gelako horman itsatsita *Nire aitaren etxea.*
Nik ere nahi nituen epika eta barrenak ernetzeko moduko zirrara
nik ere manifa amaieretan irakurtzeko moduko poemak
eta hala eta guztiz ere irakurketa politikoak amaituta
poesia idazten jartzen naizenean

etxeko txoko txikienetara joaten zaizkit begiak.

Eta problematikoa den arren bereiztea
jardun militantea eta artistikoa (geroago sartuko naiz horretan)
testu batzuk oihu artean hiltzen dira eta beste batzuek
liburuetan amaitzen dute
nire izenari lotuta
eta ezer gutxi naizenez ez bada nire izena

proiektu poetiko bakoitzaren ostean diot oraingoan bai.
Oraingoan egingo dut.
Oraingoan izango naiz zehatza esplizitua unibertsala *politikoa*
eta gero ai begiradak ihes egin.

Eta idazten dudana da
nire ahotsa nire boterea nire janzkera nire performancea

nininininininini

Zelan egin ihes orduan indibidualtasunari?

Baina Arestik azaldu zigun:
mundua diot, / nire zihorraz neurtu behar dut mundua, / beste neurririk ezin baitarabilket.

Eta agian hori bezain sinplea da.
Zer esango dut munduaz ni non nagoen azaldu barik
egia baino ezin dut esan baina nekez ezagutzen dut nirea ez den egiarik.

Eta aldi berean ez al naiz ni munduaren fruitu
eta hala ez al dut gordetzen nigan munduaren txatalik?

Nik ere / badut / nire egia / eta bankero jaunarenak / bezainbat / edo baino gehiago / balio du.

Isilarazi dutenak esatea bada zerbait.
Jendetzan ito nahi dutenak *ni* esatea ere bai.

Ni esatea nik bizi ditudanak ezagutu dituen orori keinu egitea da.
Nik irakurtzen ditudan moduan Sally Rooney, Carlos Catena, Elizabeth
Bishop eta esaten dudana moduan *ni naiz.* Literalki.
Zuk eta nik bizi ditugunak izendatzea bidea zabaltzea da
gu bat ernatu dadin.
Ohartu barik besteaz idazten eta besteengan geure burua
irakurtzen baitugu eta beraz ez baikaude bakarrik.

Ni isilaraziak izendatzea gu ikusezinak indartzea da.
/

Behin galdetu zidaten
zertaz idazten ote nuen.

Eta nik ba giza harremanak elikadura nahasmenduak
inkomunikazioa badakizu, apur bat denetarik.

Erantzuna: arazo burgesak, beraz.

Isilik geratu nintzen.

Arazo burgesak, ez dakit,

baina pentsatzen hasita

nik ez diot berdin hitz egiten

oinordetzan hartzeko etxeak aukeran dituen lagunari edo

eskuak larrugorritan izan arte edalontziak garbitzen dituenari

ez nioke berdin begiratuko neure buruari

feminitatearekin bat ahalik eta toki txikiena hartzea inposatu ez balidate

beste era batean ulertuko nituzke harremanak

kapitalismoak familia-eredu nuklearra zainetaraino xiringatu ez balit.

Botere-harremanak eta posizioak ez al daude grabatuta
gure sentipenik intimoenetan ere?

Nik egiten ditugun keinu txikiarren engranajeetara heldu nahi nuke idatziz
gure sabelen sakon-sakonean iltzatutako ideiak ere drainatzeko
ikusteko zeinen gutxi duten esentziatik.

Arestik bazekien

lurretik altxatu eta despolitizatu nahi den maitasuna ere

harreman sozioekonomikoek zeharkatzen dutela

horregatik mintzo zen amodioaren prezioaz *karioa eta merkeena*

hitz horiek erabiliz.

Eta horregatik galdetu behar dut nik zer litzateke

nahi beste maitasun ekintza bilakatzeko / (...) aski ordu / aski diru / aski

azal baneuka?

Munduan / gauza bakarra dago / erosten eztena: / dirua.
Ezer ez da gertatzen parametro horietatik aparte.

Politikoa da zeri deitzen diogun politika
eta iraultza erabatekorik egongo bada heldu behar du gure sukaldeetara
gure logeletara gure keinuetara gure azalen azpira ere.

2. Asperturik nago bakez, / ogi beltzez, bai eta kez

Zeinena da hemen gure leku-denbora pribilegiatu honetan
gero eta ezegonkorragoa bada ere bizi ei dugun bakea?

*Gu ezkara hemen lasai / bizi / Guk eztugu sentitzen / paradisu bat. / Dantek
ere etzuen holakorik / asmatuko. / Hau da basatza haundi bat. / Hemen
aingeruen arimak ere likistuko lirake. / Hemen bakarrik gordetzen dira
garbirik / dontzeila aberatsen florea, / ezen ez lorea. / Hemen ezin liteke
harnasarik har. / Hemen ito egiten da libertatea. / Gizonak erosten dira, /
sagarrak bezala, / andreak saltzen dira / madariak bezala.*

Gudu-zelaiak atrakzio turistiko bihurtu diren tokian ez al dago
biolentziarik?

*Hemen oro da garbitasuna, / langileen andreek / beren gizonen izerdiak /
kentzen baitituzte / banko-etxeetako patioetatikan.*

Zer bake mota da biolentzia onartzen duena salbuespentzat jo badezake
edo lau horma artean geratzen bada?

Adibidez norberaren begirada zalantzan jartzera garamatzen biolentzia:
*beste behin erantzun definitu zehatzak eskatzen dizkidate / eta ba al dago
naizena hingatuko ez duen azalpenik?*
*Zain nengoen esan zeniezadaten [baietz] / erreala zela / saihetsa malkoz
berotzen zidan*
ebakia

Edo gure denbora beste norbaiten esku jartzen duen biolentzia:
*Urte betean lehenengoz bi ordu eman genituen hizketan / (...) / zalantzez,
kapitalez eta hierarkiez / minak ondu eta ondu eskuak leuntzeraino. //*
*Elkarrizketari azken hiru puntuak jartzera gindoazela / pasa zitzaigun
ondotik bikote edadetua / espaloiaaren ertzero mugitu ginenean agureak irri-
barre egin zigun / lasai, lasai, / bada lekua eta denbora // eta pentsatu nuen
baietz / lekua eta denbora badirela / biek dutela itzulpen materiala / badira /
baina non daude?*

Edo existitzen ez garela sinetsarazi nahi digun biolentzia:
*Besterik helduko ez zaigula jakitun / azpitestuz eta angelu itsuz elikatzen
gara // batzuk hemen bizi izan gara beti / ikusi nahi ez duzuen lekuan.*

Edo biolentziazko mundu honen gainean eragiteko eskumena kentzen diguna:
*orain garaion biktima naiz / nire belaunaldiaren adierazpen gorena / eta
hemen nago idazten ohetik / ez baitut jaiki nahi / nahiz eta egiteko dudana
ezer izan ez / ohean geratu nahi dut eta zutabeak irakurri lerroak euren
artean nahasten diren arte / agian orduan izango dut jaikitzean pausoa ema-
teko noranzkorik / bozgoran formula daitekeen iritzirik...*

*Ni beti paratuko naiz / gizonaren alde zioen Arestik eta niri gizon berba
ez zait larregi gustatzen beraz esango dut ni beti paratuko naizela
bizitzaren alde.*
Eta uste dut gauza berberaz ari garela.

Zergatik metitu ote gara / halako enplego txar batean? / (...) Baina zergatik? / Ez ginen gu ederki bizi / Bilboko hirian, / gaztelaniaz, / hispanidadean? / Baina ez. / Gure leinuaren ezagugarria da. / Ur lasterraren kontra iher egiten dugu.

Euskaraz bizitzea aukeratu dugunok
edo hilaren 25era nondik moztu ez dakigula heltzen garenok
edo gizon zisheterozuriaren moldean kabitzen ez garenok
ez dugu
ezagutzen bakerik.

Eta gure leinuaren ezaugarria da ur lasterren kontra igeri egitea
izan gure leinua herriarena kuirrena militanteena poetena
berdin zait
nik neuk ez dakit bereizketarik egiten.
Baina oinarri batzuk ezartzen badakit:

hizkuntza kolonizatzaileen aurrean kultura minorizatuak,
performance eta bizimolde normatiboen aurrean okerkeria,
kapitalaren ur lasterren aurrean bizitza.

Logika inposatuen aurrean arrotzea estrainamendua
poesia.
Nik ez dut poesiarik nahi militantzia barik.

**3. Esanen dute / hau / poesia / eztela, / baina nik / esanen diet / poesia /
mailu bat / dela**

Eztaikit nola atrebitzen naizen / honela eskribitzera, / euskera klaro batean, / euskal garbi honetan. / Nik nahiago nuke, / egiaz diot, / holako hitz zakarrik / ez erabili, / (...) eztadin honela nirekin hasarra / inor, / eztezan inork / nigan / euskeraren kontrako gorrotorik / bila... / Baina hola gertatu da, / eta nik eztut kulparik. / Mundu guztiaren kontra / nola ausartuko nintzake? / Nire lekua dago / herriaren aldean.

Zertarako idazten dugu esateko ez bada?
Idatzi bai egin daiteke barrura begira
baina guk idatzi eta idatzitakoak paperean jartzen ditugu
tinta eta tresneria erabiliz eta zertan eman hainbeste energia eta baliabide
zerbait

 esateko ez bada?
Eta, era berean, nekez esan daiteke zinez ezer entzungo duen
inor ez badago.

Guk hitzekin zerbait eraikitzen saiatzen garenok habeak eta hormak
jar ditzakegu baina
 ikusezinak gara inork irakurtzen gaituen arte.

Eta hori da agian poesiak dakarren joko konplikatuena
 zuzentasunaren eta metaforaren artean
 esatearen eta sentiaraztearen artean
 mundu partekatuen eta barne-munduaren artean
 oreka topatzea.

*Horregatik Kantabriako itsasoaren kostaldera joan nintzen, / eta Izaroren aurrean
negarrez, / nire poemaren urrezko orriak / entregatu nizkien / uhineri, / hobe baita
itorik hil, / goseak baino; eta aldi berean dirurik eztagoen egunean / ezta / gizonik /
erosiko.*

*Edo beharbada hau zen guztia / ematearekin bat jasotzen ikastea /
etortzeko denari lotu orde, eta gero lur egonkor epeletan oinak / kilikatzen
dizkiguten mitxoletei / begira geratzea.*

Irudia eta adierazpena. Esatea eta sentiaraztea. Bietatik zerbait.

Baina hala ere zer zer hitz zer egitura zer lexiko?
Gure hizkerak ondokoenekin topo egiten duen tokia *euskara klaroa* bada
jantzi dezagun euskara klaroa irudiz
ematen digun argia izan dadin aldiro
 epela edo hotza zuria ala urdina naturala edo artifiziala.

Daukagun hizkuntzaren ertzak moldekatuta
 ahalik eta hitz gutxienean esan dezagun ahalik eta gehien.

Mapa barik ia kasualitatez zapaltzen ditugun oreka-puntu horietan
hor dago poesia
 hor ernatzen dira oraindio izendatu ez ditugun emozioak.

Eta zerk mugituko du inor norberaren interes zuzenak alde batera utzita
emozioak ez bada?

/

*Hea nork erregalatzen digun / marfilezko dorre bat, / eztezagun ikus / hemen
gertatzen dena.*

Dietak, kremak, gimnasio-errutinak
 konspirazio-teoriak, *celebrityak*, *realityak*
 meme bihurtutako politikariak, *memean* hasi eta noizbait
errealitate bihurtuko diren politikak
 otoitzak, Lorazepamak, 17 €ko hegaldiak
zenbat
zenbat marfilezko dorre
 ez dezagun ikus hemen gertatzen dena?

Egia esatea	marfilezko dorre oro txikitzea da.
Ikus dezagun	sinetsarazi diguten guztia
mundura sortu ginenetik	konfiguratu gaituen guztia
jar dezagun zalantzan.	

Harribitxiak itsutzen bagaituzte zikin ditzagun lurrez.
Gizatiarra dena ez da perfektua eta mundu honetaz esan daitekeena
ez da garbia.
Garbi klaru egin dezagun berba hutsunez.
Eta metaforek lagun egin diezagutela.

/

Ulertu eta salatu ostean ez gaitzan hartu paralisiak irudikatuz eta idatziz has gaitezen eraikitzen.

Adibidez

*bihotz-museo bat / non maite dugun orok iraungo duen / esku traketsen
dardaraldien beldur barik
edo mundu bat non ez dizkiguten desirak goitik behera diseinatzen
non ez dugun elkar begirada zorrotzez biluzten
non biziraun beharrean bizi egin gaitezkeen.*


Hori nahi nuke eman dezagun poesiaz:

gaurko egia zein den jakinda ere ezer betierekorik ez dela
sinesteko bidea.

Eta gure hitzek ametsak lurrera ditzaten.

Gabrielek zioena irudikatzen dut nik ere:

*Egun batean / eztu inork / ezer erosiko; / egun batean / ezta merkatuetan
/ sagarrik salduko. / Egun batean / guztiok / izanen gara / zoriontsuak.*



Ale hau 2025eko azaroan inprimatu zen,
Gabriel Arestiren heriotzaren 50. urteurrenean.
Zorrotzako portuan antiojoak busti zitzaizkion,
baina airean dirau hango enborren zerrautsak.

